BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

913

EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 31koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, eranskinean aipatzen diren udalei ordezkapenetarako diru-laguntza ematen diena.

Diru-laguntza hauek euskarazko eskoletara joateagatik egindako ordezkapenak diruz laguntzeko ematen dira, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 7. artikulua eta hurrengoak betetzeko. Agindu horren bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko diru-laguntzen arauak.

Ikusirik ordezkapenak zuritzeko udalek aurkeztu duten dokumentazioa, eta berau aginduan ezarritakoarekin konparatu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Bakarra: eranskinean aipatzen diren udalei eta 2012ko uztail-abendua epean egindako ordezkapenetarako kontratazioen diru-laguntza gisa, bakoitzarentzat izendatzen den diru kopurua ematea.

Ebazpen honen aurka, ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluak arautzen duen moduan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari aurkez dakioke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hala ere, aldez aurretik, erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezeztatu dezan. Errekerimendua IVAPeko zuzendariari zuzendu beharko zaio idazki arrazoitu baten bidez. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabetean erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendua izan bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea, berariazko akordioa jasotzen den edo isilbidez ezeztatuta jotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 31.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

ERANSKINA

2012ko uztail-abendua

Erakundea	Modulua	Ordaindutako hilabeteak	Ikasle kopurua	Diru-laguntza moduluka (eurotan)	Guztira (eurotan)
Donostiako Udala	25 10 10	3 1 3	2 1 1	11.832,48 488,09 1.464,27	13.784,84
Vitoria-Gasteizko Udala	25 25	0 1	1 1	0 1.972,08	1.972,08
Guztira					**15.756,92**